



Ana M^a Martín Bravo

Dokumentazio eta Artxibo Zerbitzuko burua
Prado Museo Nazionala

Ana María Martín Bravo Filosofia eta Letretan lizentziaduna da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan, eta doktorea Unibertsitate Konplutentsean (1996). 1999az geroztik Museoetako Kontserbatzaileen Kidegokoa da, eta 2000. urtean Prado Museo Nazionalan hasi zen lanean. Bertan, Dokumentazio eta Artxibo Zerbitzuko buru da 2008tik. Prado Museoko Garapen Digitalaren arloarekin lankidetzan aritu da Ezagutza Grafo bat sortzeko, webgune semantikoaren printzipioak Museoak bere bildumari buruz dituen datu multzoarekin integratu ahal izateko.

Prado Museoko bildumei buruzko informazioa kudeatzeko modua eta Museoko artelanei eta Artxiboko funtsei buruzko ezagutza webgunearen bidez zabaltzeko egindako lana eman ditu ezagutzera hainbat argitalpenetan: *El Área de Biblioteca, Archivo y Documentación del Museo Nacional del Prado: hacia una integración de procesos y servicios* (Prado Museo Nazionalako Liburutegi, Artxibo eta Dokumentazio Saila: prozesuen eta zerbitzuen integrazioarantz), 2009koa; *La gestión de la información en el Museo del Prado* (Informazioaren kudeaketa Prado Museoan), 2015ekoa; *200 años documentando las colecciones en el Museo del Prado. Más allá del papel* (200 urte Prado Museoko bildumak dokumentatzen. Paperetik harago), 2019koa, edo *El proceso de digitalización de la colección del Museo del Prado: del papel continuo a la web semántica* (Pradoko Museoaren bildumaren digitalizazio-prozesua: paper jarraitutik web semantikora), 2021.

Adimen artifiziala Prado Museo Nazionalako bildumen azterketari, dokumentazioari eta zabalkundeari aplikatzea: bi proiektuen historia

Azken urteetan, Prado Museo Nazionalak bi proiektu gauzatu ditu adimen artifiziala baliatuz bere bildumak aztertzeko, dokumentatzeko eta zabaltzeko. *Irakurketa handitua* da horietako bat, 2019an abian jarria honako helburu honekin: Pradoko webgunean erakusgai dagoen obraren ulermen kolektiboa hobetzen laguntzea, kontuan hartuta orobat izan daitekeela obra horretatik haratago dauden baina hark bide eman diezaiekeen beste ezagutza eta testuinguru batzuetara iristeko bidea. NLU (Natural Language Understanding) tresna baliatuz, webgunean argitaratutako obren fitxetako azalpen-testuen entitate eta kontzeptu edo gai nagusiak bereizi eta desanbiguatu ziren. Horrek aukera eman zuen azalpen-testuetan testuinguru-eremu

automatiko bat sortzeko, baita bildumaren denbora-lerro bat ere, hari buruzko testuinguru-informazioarekin.

Bigarren proiektua *FrAI_Angelico* da, 2023an abian jarria. Proiektu honi esker, iruditik bertatik sor daitezke pintura-lanen deskribapenak eta identifika daitezke pertsonaiak eta gaiak, Museoko bilduma modu eraginkorragoan ulertzen eta dokumentatzen laguntzeko. Adimen artifizialeko eredu bat erabili da, margolanen deskribapenekin elikatua, gai izan dadin Pradoko pinturen edukia zehatz aztertzeko; eta, eredu horretatik abiatuta, proiektu pilotu bat sortu zen, datozen urteetan zabaldu eta pintura-bilduma osoari aplikatuko zaiona.